

Emakume migratzaileak: familia biltzearen arazoak eta horrek amaren eta seme-alaben arteko harremanean duen eragina

Ane Aguirregabiria Guereta

Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea, Deustuko Unibertsitatea
ane.aguirregabiria@opendeusto.es

Egungo migrazio-fluxuek, iraganekoekin alderatuta, emakumeengan dute ardatz nagusietako bat. Familia biltzearen prozesua kideak banandu aurretik hasten da, banantzean zehar hedatzen da, eta kideak berriro bildu eta denbora batera amaitzen da. Egokitzapenean sortzen diren arazoak eta arazo horiek ama migratzaileen eta haien seme-alaben errealtatean duten eragina asko sakondu gabeko gaia da gaur egun, eta ikerketa honen helburua, hain zuzen ere, emakume migratzaile horien eta haien seme-alaben egoera aztertzea da. Horregatik, migrazio-prozesu bat aurrera eramateko arrazoiak ezagutzearekin bat, esplorazio-ikerketa honek bi alderdi lantzen ditu: emakume migratzaileek eta haien seme-alabek bananduta emandako denboran bizitako esperientziak aztertzen dira batetik, eta familia biltzeko prozesuan agertzen diren arazo eta zailtasunak bestetik. Hala, ikerketa kualitatibo bat egin dugu, kasu-ikerketaren metodologia medio, eta elkarrizketak erabili dira horretarako. Ateratako ondorio nagusiei erreparatu gero, azpimarratzekoa da familia biltzean izugarriko sufrimendua izaten dela: hasieran, kideen arteko harremana ezezagunen arteko harreman gisa identifikatzen da; eta, horrekin batera, erantzunik ematen ez zaien zailtasunak eta arazoak sortzen dira bananduta egon ondoko egunerokotasunean.

Gako-hitzak:

Familia biltzea, familia transnazionalak, migrazio-prozesua, ama migratzaileak, banaketa, eragina.

A diferencia de los flujos migratorios del pasado, los actuales tienen a las mujeres como protagonistas. El proceso de reagrupación familiar comienza antes de la separación de los miembros de la familia, se extiende durante esa separación y termina un tiempo después de la reagrupación efectiva. A falta de estudios que profundicen en el asunto, el objetivo de esta investigación es analizar la situación de las mujeres migrantes y sus hijos e hijas tras la reagrupación. De esta forma, se pretende conocer las razones de la migración, las experiencias vividas durante la separación y los retos de la reagrupación. Para ello, se ha llevado a cabo un estudio cualitativo, a partir de una metodología de investigación de casos, cuya principal conclusión es la presencia de sufrimiento: la relación entre madres e hijos/as se define inicialmente como una relación entre desconocidos; y, con ello, surgen grandes retos a los que no se da respuesta en el día a día.

Palabras clave:

Reagrupación familiar, familias transnacionales, proceso migratorio, madres migrantes, separación, efectos.

1. Sarrera

Familia biltzea migrazio-mugimenduak hasi zirenetik gertatu den fenomeno da dela esan daiteke. Migratu duten pertsonen ezaugarriak urteen joanean aldatzen joan badira ere, familia biltzearen prozesua bera, aldaketak aldaketa, oraindik indarrean dago gure gizartean. Azken urteotan, migrazio-prozesuak oso modu esanguratsuan hazi dira bai Espainian eta bai, zehatzago hitz eginda, Euskal Herrian. Munduko herrialde ugarietan izan dute jatorria prozesu horiek, eta, gainera, protagonistak ez dira beti profil edo ezaugarri bereko pertsonak izan. Horregatik, egungo errealtateara joz, gaur egun familia biltzen duten migratzaileen fenomenoak gertutik ezagutu nahi izan dugu, eta, horiek horrela, seme-alabak sortzerian uzten dituzten eta aukera berrien bila abiatzen diren ama migratzaileek hasitako migrazio-prozesuetan jarri dugu ikerketaren fokua. Laburbilduz, ikerketa honek bi helburu nagusi ditu: batetik, familia biltzeak zer-nolako arazoak dakartzan jakitea, eta, bestetik, horrek amen eta seme-alaben arteko harremanetan zer-nolako eragina duen aztertzea.

Migrazioaren fenomenoak eta, zehazki, migrazio latinoamerikarrarena zenbait autorek ikertutako fenomenoak da; adibidez, aipatzekoa da Solé eta Parellak (2004) Espainian amatasun transnacionalari eta emakume latinoamerikarrei buruz egindako ikerketa. Hala ere, gutxi dira familia biltzeko prozesuetan familiek dituzten behar eta nahi nagusietan zentratzen diren ikerketak. Familia biltzeko lege beharrezkoak diren prozedurei buruzko informaziorik falta ez bada ere, prozesuak berak dakartzan zailtasun, oztopo eta sentimendu edo emozioei buruzko kasu-ikerketa gutxi aurkitu dira. Jarraian aurkeztuko dugunez, amen eta seme-alaben arteko banaketa- eta bilketa-prozesuei buruz hitz egin duten autoreak badaude, baina ez, ordea, gaiari buruzko berriazko ikerketarik.

Horregatik, garrantzitsua izan da emakume eta seme-alaba horiei entzutea, familiak banantzean eta berriz biltzean gertatzen diren gertakariak aztertzeko. Horretan, gertakariaren zergatietan sakondu dugu eta arazo horiek guztiak barneratu ditugu, historia bakoitza ezagutu eta ikerketaren helburuak lortzeko. Horrelako ikerketa baten azken helburua, izan ere, historia eta errealtate bakoitza ondo ezagutzea da, familia banandu eta berriz biltzeak izan ditzakeen eraginei eta arazoei erantzuteko eta prozesu horietan familiei ahalik eta laguntza egokiena emateko bidea irekitzeko, halako bideak gutxi jorratu baitira oraino.

Horrenbestez, esplorazio-ikerketa honen xedea behar bezala mugatzeko, esan dezagun kasu-ikerketaren metodologia erabili dugula, migrazio-prozesua hasten duten emakumeen egoera aztertzeko; zehatz esatera, emakume horien eta jaioterrian geratzen diren seme-alaben egoera aztertu dugu, banandu eta handik denbora batera atzera ere familia biltzean sortzen diren zailtasun eta arazo nagusiak zein diren jakin nahirik.

Hortaz, ama migratzaileen eta haien seme-alaben errealtatea zein den jakitea da ikerketa honen

asmoa: seme-alabengandik banantzeak ama migratzaileentzat zer adierazten duen jakitea, eta, horrekin batera, urteak eta urteak bananduta egon ondoren, familia berriz elkartzeko prozesuan sortzen diren zailtasunak aztertzea. Familia horien guztien historiaren berri jakiteko interes biziak sortua da gure ikerketa, eta, horretan, hiru akuilu izan ditugu, familiak biltzeko prozesu ororen hiru faseekin bat egiten dutenak: lehenengoa, migrazio-prozesu bat aurrera eramateko arrazoi eta erabakiak ezagutzea; bigarrena, ama migratzaileek eta haien seme-alabek, migrazio-prozesuak irauten duen urteetan zehar, bizi dituzten esperientziak aztertzea; eta, azkenik, familia biltzeko prozesuan agertzen diren arazo eta zailtasun esanguratsuenak zein diren jakitea.

Ikerketa honek zenbait atal ditu. Hasteko, atal teorikoak aurkezten dira; atal horietan, gaiari buruzko literatura berrikusi ondoren, ikuspegi teoriko bat eraiki dugu, ikertu nahi den gaia teorikoki ezagutzeko: migrazio-prozesuaren aspektu nagusiak; familiaren funtzio eta ezaugarri esanguratsuenak; migrazio-prozesuek familietan duten eragina, eta, azkenik, banaketa eta familia biltzea. Ondoren, atal metodologikoa aurkezten da; atal horretan, ikerketarako erabilitako metodologiari buruz hitz egiten da, bai eta haren diseinuari, laginaren hautaketari, erabilitako tresnei eta antzeko beste alderdi batzuei buruz ere. Gero, atal empirikoa aurkezten da; atal horretan, elkarrizketetako informazioaren gaineko azterketa da alderdirik nabarmenena, baina bada besterik ere, hala nola eztabaidarako tarte bat, gure ikerketaren emaitzak eta esparru teorikoan landutako egileen ideiak alderatzeko modua ematen diguna. Lana amaitzeko, azken atalean, ondorioak aurkezten ditugu; azken atal horretan, datuei buruzko azterketatik ateratako indar-ideietatik abiatuta, interpretazio-abstrakzio bat landu dugu.

2. Migrazio-prozesua: aspektu nagusiak

Hasteko eta behin, gure ikergaira ahalik gehiena gerturatzeko, ezinbestekoa da migrazio-prozesuei buruz mintzatzea. Horregatik, migrazio-prozesuei buruzko aspektu nagusiak landuko dira atal teorikoko lehen zati honetan.

Abu-Wardak (2008) argi eta garbi uzten du azaldu nahi den ideia: gizon-emakumeak betidanik joan dira beren jatorrizko herrialdeetako mugetatik harago; fenomeno hori gizateriaren historia bera bezain zaharra da. Ruiz García (2002) dioen modura, migratzaileentzat hartzen dira bizilekuz aldatzeko asmoa duten pertsonak sorlekutik beste herrialde batera —banaketa politiko-administratiboa duen muga geografikoren bat zeharkatuz eskuarki— egiten dituzten joan-etorriak. Azken autore horrek esandakoarekin bat eginez, Guzmán Castelo-k (2005) azpimarratzen du fenomeno horrek mugimendu edo lekualdaketa bat dakarrela berekin, eta gizabanakoaren bizimodua hobetzea duela helburu: sorlekuan edo unean-unean bizi diren lekuan aukerarik ez dutelako edo beren irizpide pertsonal guztiak asetzen ez dituztelako migratzen dute pertsonak, besteak beste.

Bestalde, globalizazioa aipatzea ere ezinbestekoa da, gure ustez; globalizazioaren eta migrazio-fluxuen arteko lotura azaltzeko, adibidez. Globalizazioa ez da oraintsuko fenomeno, gaur egungo fenomeno espezifiko. Gizateriak antzinatek izan duen bilakaeraren ezaugarri bat izan da, nahiz eta bere bilakaerak gorabehera handiak izan dituen denboraren ikuspegitik. Ekonomiari dagozkion alderdiez hitz egiteko ez ezik, "globalizazio" terminoa gero eta gehiago erabili da munduko trukeen hazkundeari buruz hitz egiteko. Globalizazioak pertsonen mugimenduei (migrazio-mugimenduak, turismoa...), kulturari (zinema, musika...), hezkuntzari (beste herrialde batzuetara ikastera doazen ikasleen kopurua izugarri handitu da) eta beste giza jarduera askori ere eragiten die, Fanjulek (2020) esan bezala.

Alde horretatik, mundua bateratu eta bakar bihurtu da, eta, hori gertatzearekin batera, osotasun gisa birfundatu da. Ez da lekualdaketa soila; oro har, globalizazioak ertz asko ditu —ertz teknoekonomikoak, sozioekonomikoak, politikoak, geopolitikoak, alderdikoiak, erlijiosoak...—, eta ertz guztiak dira aztertzeak (Romero, 2002). Era askotako interpretazioak badaude ere, guztiak dituzte ezaugarri komunak; izan ere, globalizazioa lanaren nazioarteko banaketaren etapa aurreratutzat hartzen da: munduko garapen-prozesuan esku hartzen duten faktore eta eragileekiko interakzio eta interdependentzia handiagoa izatea ezaugarri nagusi duen etapatzat, hain zuzen.

Globalizazioaren eta migrazio-fluxuen arteko harremanean jartzen dute fokua Solé eta Cachón (2006) autoreek; migrazioa, gorago Abu-Warda (2008) autorearen ideia bat aipatuz azaldu dugun bezala, betidaniko errealitate bat den arren, globalizazioak areagotu egin du errealitate hori, eta migrazio-fluxuak oso nabarmen aldatu ditu.

De Lucasen (2003) hitzetan, Europar Batasuneko immigrazio-politikek immigrazio mota jakin batzuk ukatzea dakarte, European ez baita onartzen hona langile gisa datozenena ez beste immigrazioerik. Etorkinaren ikuspegi instrumental hori dela eta, immigrazioa kudeatzeko ereduak legez kanpoko immigrazioaren aurkako borrokara bideratuta dagoela dirudi.

Era berean, autore beraren ustetan, Espainian migrazio-politikekin lotutako arazo bereziak planteatzen dira, Espainia zitzu bizian igaro baitzen emigrazio-herrialde izatetik helmuga-herrialde izatera, eraldaketa hori kudeatzeko baliabide egokirik gabe igaro ere. Espainian, arazo nagusiak bi omen dira: batetik, delinkuentziaren eta immigrazioaren arteko lotura, eta, bestetik, asimilazioaren aldekoek integrazioaren kaltean sustatu ohi duten desberdintasun kulturalaren estigmatizazioa. Horrela, immigrazio-politika zuzentzen zuten printzipioak berriro beharra azpimarratu zuen De Lucasek (2003) orain dela zenbait urte, eta, horretarako, immigrazioa politika global gisa ulertu eta demokrazia plural eta inklusibo baten esparruan txertatu beharra dago.

XX. mendeko azken laurdenari eta, bereziki, XXI. mendeko lehen hamarraldiari bagagozkio, esan beharra dago Espainian migrazio-joerak aldatu egin direla, eta, nazioarteko migrazioen bolumen gero eta handiagoaren testuinguruan, etorkin gehien jasotzen dituen herrialdeetako bat bihurtu dela; Espainiara jatorri askotako etorkinak iristen dira, baina latinoamerikarrak dira nagusi (García Ballesteros, Jiménez Basco eta Redondo González, 2009).

García Azpururen (2017) arabera, Espainiara atzerritar asko iristen dira (azken hamar urte inguruan, ia sei milioi iritsi dira), eta autonomia-erkidego bakoitzak, bere ezaugarri sozioestrutural eta laboral zehatzen arabera, jatorri eta tipologia jakin bateko etorkinak aukeratzen ditu inplizituki. EAEko immigrazio-eredua estu-estu lotuta dago klase ertaineko familien premiekin eta egungo egitura demografikoarekin; izan ere, gurean, pertsonen zaintza-, arreta- eta mendekotasun-premiei aurre egiteko behar ditugu etorkinak.

Gipuzkoan, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2015. urtetik 2021. urtera bitarteko datuak argitaratu ditu; guk, ordea, 2021eko datuetan jarriko dugu arreta: Gipuzkoan bizi diren 726.033 lagunetatik 81.692 atzerritarrek dira; atzerritarren % 52,3 (42.694) emakumeak dira, eta hori aipatzekoa da; atzerritarretako 40.470 latinoamerikarrak dira, eta gehienak, 24.838, emakumezkoak.

Datuei erreparatu ostean, hor tartean dauden migrazio-prozesuen ezaugarriak aintzat hartzen baditugu, ezinbestekoa da immigrazio latinoamerikar femeninoa aipatzea. Martínez Bujánek (2003) adierazi duen bezala, ohikoa da immigrazio latinoamerikarra immigrazio femeninoarekin lotzea; hala berretsi dute, behin eta berriz, Espainiara iristen den migrazioaren osaerari buruzko hainbat azterlanek. Oro har, Latinoamerikatik Espainiara iristen diren immigrante gehienak etxeko buru bihurtzen diren emakumeak dira, eta horrek horrela izaten jarraitzen du gaur egun ere. Emakumeen migrazio horrek, Contreras Hernández (2016) autoreak azaldu duen bezala, mundializazio kapitalista, neokolonialista eta patriarkala agerian uzteko bidea ireki du, eta argi erakutsi digu sistema horrek estu-estu uztartzen dituela lanaren banaketa sozial, internazional, sexual eta arraziala.

Gauza bera aipatu dute García Ballesteros *et al.* (2009) autoreek; haien arabera, emakume eta gazte izatea dira Espainian bizi izan diren immigrante latinoamerikararen ezaugarri nagusiak, eta, hain zuzen ere, feminizazio horrek bereizten ditu, gainerako immigrante gehienak gizonezkoak baitira. Askotan, emakumezko migratzaileak berak izaten dira sorterrira itzuli eta senitartekoak euren urratsak jarraitzera bultzatzen dituztenak; halakoetan, familia berriz elkartzeko mekanismoak erabiltzen eta senarrak eta seme-alabak ekartzeko dokumentuak lortzen dituzte (Oso [1998], Martínez Bujánek [2003] aipatua). Beraz, esan daiteke gaur egungo migrazio-fluxuek, iraganekoan aldean, emakumeak dituztela protagonista nagusiak.

Pedonek (2003) zehazten duen modura, latinoamerikar emakumeak beren migrazio-proiektuen eragile aktibo bihurtu dira, familia-antolaketa eraldatu dute, eta migrazio-prozesuan inplikaturako familiako kideen bizibideak zabaldu dituzte. Gainera, haien migrazio-proiektuak gizonenak ez bezalakoak dira: gizonen proiektua sorterrira itzultzea izan ohi da —Espainian denbora bat igaro ondoren—; emakumeena, berriz, bertan gelditzea eta seme-alabekin berriz elkartzea. Horrekin bat, García Borregok (2010) esaten duenez (Cárdenasek (2014) aipatua), emakumeek etorkizuneko estrategiak eraikitzen dituzte, eta, bai norbanako gisa et bai beren bikote-harremanetan eskuratutako eskubideak ez ezik, seme-alabak herrialde sozioekonomiko garatuago batean bizitzearen abantailak ere ikusarazten dituzte.

3. Familia: funtzioa eta ezaugarri esanguratsuenak

Migratio-prozesuen zenbait aspektu esanguratsu landu ondoren, familia aztertzeo uena iritsi da. Kasu honetan, familia barruko kideen arteko errealtateari erreparatzen zaiolarik, izugarritzko garrantzia du familiaren funtzioa eta ezaugarri esanguratsuenak ezagutzea.

Emakumeak gero eta ahalduz eta autoestimua handiagoen jabe bihurtu eta sozializazio-eredu eta -teoria berriak agertu izanak rol femeninoak berritu dituzte, eta, beraz, baita rol maskulinoak ere, eta horrek guztiak era askotako eragina izan du familietan (García eta Gustavo, 2013). Schatkeek (2016) dioenez, familia harmonia eta maitasuna behar dituen sistema bat da; familia-eredua zainahi dela ere, familiako kideen zeregina denen garapenari eta ongizateari laguntzea da.

Aztertzen ari garen fenomeno ardatz gisa harturik, nabarmendu behar da, Falicovek (2007) esan bezala, Mendebaldeko familiaren definizioak familia nuklearra duela oinarri, baina etorkin askok familia oso modu zabalean ulertzen dutela. Gainera, Cárdenasek (2014) dioenez, migratzaileen familia- eta gizarte-sareak kultura-kode, -rol eta -patroi bereziak ditu, eta beren arteko harremanak kulturalki negoziatzen dituzte; adibidez, hazkuntza familiako kide guztien artean partekatzen dute, gertu zein urruti egon, erantzukizuna nork bere gain harturik.

Shaffer eta Kipp (2013) autoreek adierazitakoaren arabera, familia-testuinguruak haurren garapen-prozesuan duen eraginaren aldeko ebidentzia enpirikoen berri ugari eman dute luzaroan egindako ikerketa askok. Komunitate zientifikoan bertan, Palacios eta Rodrigo (1998) ikertzaileek dioten modura, denak bat datoz: seme-alaben nortasuna definitzearen eta heztearen arduradun nagusi eta pertsona esanguratsuenak gurasoak dira. Ikerketa batzuek agerian utzi dute, adibidez, familiako giro emozionalak lotura estua duela adingabeen osasun mentarekin (Stocker *et al.*, 2007). Gainera, Reyesen (2012) hitzetan oinarrituz, kontuan izan

behar da familia dela haurrek beren nortasuna eraikitzeo prozesuari ekiten dioten agertokia, hau da, elkarrekintza- eta komunikazio-moduak ikasten dituzten tokia.

Hala ere, Máiquez *et al.* (2000) eta Trigo (1998) adituen esanetan, guraso batzuk hainbat estres-iturriren mende daude (langabezia, pobrezia, gizarte-isolamendua, etab.), eta familia-hausturei, familia-disfuntzioei, gizarte-ingurune pobretu eta desegituratuei eta guraso-funtzioak oztopatzen dizkieten gizarte-arazo ugari (ezkontideen arteko arazoak, toxikomaniak, etab.) egin behar izaten diete aurre. Beste aditu batzuen arabera (Balsells, Del Arco eta Miñambres 2007), egoera makur horietako batzuek eta beste ezaugarri pertsonal batzuek —hezkuntza-maila baxua, arazoak konpontzeo estrategia desegokiak, autoestimua txikia, gizarte-trebetasunik eza, oldarkortasuna, gurasoen estresa...— hezkuntza-jarraibide arriskutsuak eragin ditzakete, eta, adituek diotenez, halako egoeran dauden familiek arrisku psikosozial handia dute.

Azken batean, Benítez Pérez (2017) autoreak esan duen bezala, munduko edozein lekutan jotzen da familia gizabanakoen bizitzako alderdirik baliotsuentzat eta garrantzitsuentzat; gure ondare nagusia da, eta erakunde iraunkorra den arren, aldatetara egokitzeo gaitasun handia du. Eta aldatetara egokitzeo gaitasun handi horixe da, hain zuzen ere, familiari historian zehar erakunde iraunkorra izateo aukera eman diona. Hala ere, Rodrigo eta Palacios (1998) ikertzaileek iradokitzen duten bezala, familia-sistemako unitateak elkarri lotuta daude, eta, beraz, sistemaren zati bat aldatzeak eragina du gainerakoetan.

4. Migratio-prozesuen eragina familietan

Aurreko bi zatiekin lotura estua duen auzi bat landuko dugu jarraian: migratio-prozesuak familietan zer-nolako eragina duen; eta, zehazki, familiako kide bakoitzari nola eragiten dion.

Migratio-prozesuan parte hartzen duten eta senide bat edo gehiago dituzten familiek eraldaketa sakonak eta krisialdiak izan ohi dituzte (Carrasco, Pàmies eta Bertran, 2009). Hori, Terrén eta Carrascoren (2007) esanetan, banantzearen eta kide guztiei eragiten dieten planak eta itxaropenak berregokitzearen ondorioz gertatzen da. Horrela, bada, etorkin-familien proportzio handi batek berregituratze-prozesuak bizi ditu, eta prozesu hori seme-alaben hezkuntzan funtsezko eragina duten egiturei, harremanei eta funtzioei dagokione, besteak beste.

Casasek (2008) azaldu duen bezala, haur batzuek abandonu gisa sentitzen dute beren amaren migratio-prozesua; beste batzuek, ama martiritzat hartzen dute; izan ere, ama zer-nolako sakrifizioa egiten ari den ikusteak eta etxeko beharren hornitzaile ontzat hartzeak segurtasun emozionala eta esker oneko sentimenduak dakartza berekin.

Solé eta Parellak (2004) Espainiako amatasun transnazionalari eta emakume latinoamerikarrei buruz egindako ikerketa batean erakusten dutenez, banaketak ondorio garrantzitsuak ditu amen osasun fisiko eta mentalean migrazio-prozesuaren hasieratik: nostalgia, mina, larritasuna eta depresioa, zehatz esatera. Emakumeek, seme-alaben banaketa ahazteko, lanean murgildu eta lanaldi trinkoak egiteko joera dute, eta horrek, azkenerako, estresa eta akidura fisikoa eragiten eta osasuna hondatzen die. Gainera, oro har, amaren eta seme edo alabaren arteko banantze-aldia uste baino gehiago luzatzen da.

Arreta familiako gazteengan jarriz gero, Fajardo, Patiño eta Patiño (2008) autoreek Sam eta Berry (1995) eta Mirsky (1997) aipatuz adierazi duten bezala, jokabide-arazoak eta desordena psikopatologikoak izateko arrisku-talde gisa identifikatu dira nerabe etorkinak. Etorkin gazteek bi desordena emozional mota izaten dituzte: alde batetik, jokabide-desordenak, bereziki jokabide antisozialak; eta, bestetik, nortasun-gatazkak eta autoestimu txikia.

Cerezo eta Pons-Salvadorrek (1999), beste egile batzuen artean, emigrazio-prozesuan aldaketa handi bat izan duten adingabeen garapen egokian eragin negatiboa izan dezaketen guraso-praktiken ezaugarri gisa, haurren eta gazteen garapenean funtsezkoak diren zenbait alderdi ez betetzea aipatu dute, hala nola adingabeen premiekiko sentsibilitatea, afektua, komunikazioa, arauak behar bezala jartzea eta jarduerak gainbegiratzea. Horrekin batera, Trenado, Pons-Salvador eta Cerezo (2009) autoreen esanetan, migrazioari datzekion aldaketek egoera bereziki estresagarriak edo nahasgarriak eragin ohi dituzte, eta horrek gurasoen eta seme-alaben arteko elkarrekintza zaildu dezake; horregatik, garrantzitsutzat jotzen da familia horiek, migrazio-prozesu batean daudenez edo egon direnez, era askotako laguntzak izatea, ondorio horiek minimizatzeke.

5. Familia banatzea eta berriz biltzea

Azkenik, familiak banatzeari eta berriz biltzeari buruz jardutea komeni da. Horri dagokionez, ezagutu nahi den errealitatearen aspektu nagusietako bi hauek dira: aurrena, amak eta seme-alabek bananduta igarotzen duten denbora, eta, hurrena, familia berriz biltzen den unea. Familien banatze- eta biltze-kasuak azalduz amaituko dugu ikerketa honen atal teorikoa, eta zenbait autoreren ekarpenak ere aipatuko ditugu.

Familia biltzearen kontzeptuarekin lotutako ikerketen mamian sartu baino lehen, prozesuaren baldintzak eta prozedurak jakitea komeni da. Blanco Fernández de Valderramak (2016) azaltzen duen modura, immigrazioa jasotzen duten gizarteetan —gure kasuan, Espainian—, Familia Berriz Elkartzeko Eskubidearen bidez gauzatzen dute etorkinek familia-bizitzarako duten eskubidea. Hala ere, familia-bizitzarako eskubide horrek muga garrantzitsu batzuk ere baditu etorkinen kasuan ("hirugarren herrialdeetakoak" diren etorkinenean, zehatz esatera): eskubidea dakarren

arauen bertan, indarrean dagoen Atzerritarrei buruzko 4/2000 Lege Organikoan eta lege hori garatzen duen 557/2011 Errege Dekretuan xedatzen direnak. Horietako batzuk azalduko ditugu jarraian.

Familia berriz elkartzeko eskubidea "hirugarren herrialdeetako" nazionalitatea duten etorkinentzat baino ez da erregulagarria. Bestalde, familia-bizitzarako eskubidea eskubide murriztua da "hirugarren herrialdeetako" etorkinentzat, bai elkartzeko baldintzengatik, bai elkartu daitezkeen pertsonengatik (aukera hori ez dagokie familia bateko kide guztiei). Horiek horrela, familiarekin berriz elkartu nahi duen etorkinak honako baldintza hauek betetzen baditu soilik gauzatu daiteke eskubidea: bizileku-baimen berritua izatea (gutxienez urtebete ematea Espainian legez bizitzen); lana edukitzea (ezin da langabezia egon); baliabide ekonomiko nahikoak izatea (gizarte-sorospenen bidez lortutakoak ez dira baliabide ekonomiko gisa zenbatzen); etxebizitza "egokia" edukitzea (kasuaren arabera, etorkina bizi den udalerriko udalak edo autonomia-erkidegoak egindako txostenaren bidez justifikatu eta tasak ordaindu behar izaten da); familia osoarentzako osasun-estaldura izatea; eta, azkenik, aurrekari penalik ez izatea. Baldintza horiek kontuan izanik, berriz elkartu beharreko pertsona ezkontidea izango da (edo antzeko harreman afektiboa duen norbait), betiere bakarria bada. Azkenik, nabarmendu behar da familia berriz elkartzeko egoitza-baimena aldi baterako baimena dela, eta baimen horren indarraldia taldekatazailaren egoitza-baimenarekin batera iraungitzen dela, baina biak berritu daitezkeela, baldin eta aurreko baldintzek bere hartan irauten badute.

Blancok (2016) azpimarratzen duen bezala, etorkinek eskabide, paper eta izapide burokratiko ugari egin behar izaten dituzte, eta horrek familia-bizitzarako ustezko "eskubidea" labirinto katramilatsu (eta garesti) bihurtzen du Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik datozen etorkinentzat.

Banantzei dagokionez, gainera, Gómez de León del Rio eta Vincencio Guzmán (2006) autoreek adierazi duten moduan, transnazionalismoaren kostu emozionalak handiak izan daitezke tartean dauden guztientzat. Parella eta Cavalcantik (2010) ere gogorarazi dute gauza jakina dela emigratzeak pertsonengan eragiten duen presio eta oztopo ugarien artean familiarengandik fisikoki bereizteak bestelako estrategia batzuk martxan jartzea eskatzen duela. Familiako kideei lurraldeka banatzeak kostu handia eragiten die, horrek eguneroko praktika asko aldatzen eta nahasten baititu, familia espazioaren ondorioz hautsi izanaren ondorioz.

Familia transnazionalak eta bizitza *in situ* partekatzen dutenek ez dituzte ezaugarri berberak. Familia mota berri bat osatzen dute nolabait, eta familia berri horrek arazo teoriko eta terapeutiko berriak ekartzen ditu, mugetako lotura horiek bi bihotzekin biziartzen dituzte, bihotz zatitu batekin. Sorensenek (2008) dioen modura, familia transnazionalaren bizitza prozesu ekonomiko, politiko eta sozial konplexu

eta interkonektatuen eraginpean egotea eragiten du gurasoen eta seme-alaben arteko kontaktua mantentzeak, baina ondorioak latzak dira, batik bat seme-alabentzat.

Banantzeei eta elkartzeko transnazionalari dagokienez, Falicovek (2008) azpimarratzen duen modura, nabarmentzekoa da migrazioak beti eragiten duela banaketa bat; adibidez, askotan familia nuklearra familia zabaletik aldentzen du. Orain dela gutxi arte, aita zen aurrenekoa sorterritik alde egin (Afrika edo Asiako herrialde batetik, adibidez) eta bakarrik emigratzen zuena; emaztearekin eta seme-alabekin gero elkartzen zen, adopzio-herrialdean, diru piska bat egin ondoren. Gaur egun, aurretik aipatu diren migrazio-prozesuetan ikusi gabeko errealitatea ikusten da bakarrik dauden amei dagokienez. Dena dela, Falicovek (2008) Llerena-Quinn eta Pravder-Mirkin (2005) adituek esandakoa jasoz dioen bezala: halakoetan, askotan, seme-alabak ahaideen zaintzapean uzten dira denbora-tarte batez (hilabete eta are urte batzuek ere).

Hori esanda, ezinbestekoa da familia biltzearen definizio bat berreskuratzea; Cárdenasen (2014) hau, esate baterako: berriz elkartzea familiako kideetako batek leku batetik harrera-herrialdera joateko bidea hasteko erabiltzen duen prozesua da. Hasieran, familia nuklearreko gainerako kideak uzten ditu, eta handik denbora batera herrialde berrira itzultzen da. Banandu aurretik hasten da prozesua, migrazio-proiektuarekin eta adingabeak zaintzeko abian jartzen diren estrategiekin; banantzean zehar hedatzen da, gurasoen eta seme-alaben arteko harremana mantentzen jarraitzeko taktikak bilatzen direnean; eta, kideak berriro bildu eta denbora batera amaitzen da, familia-antolamenduan ingurune berrira egokitzeko egiten diren egokitzapenekin.

Bestalde, familia berriz elkartzeko prozesu horri dagokionez, harremanak bizirik mantentzeko ahalegin ausartak egin diren arren, aipatzekoa da Falicovek (2008) Falicov (2003) aipatuz azpimarratzen duena: migrazioaren ondorioz banandutako seme-alaben eta gurasoen arteko topaketa gertuago dagoela pertsona arrotzen arteko topaketatik benetako familia baten topaketatik baino. Baliteke haurra edo nerabea, bere sentimendu eta emozio guztiekin, immigrante iritsi berriaren anbibalentziarekin lotutako shock kulturala eta depresioa igarotzen aritzea.

Martínez-Taboada, *et al.* (2017) autoreek euren ikerketan jasotzen dutenaren arabera, seme-alabak berriz elkartu aurreko egoeran dauden ama transnazionalak iragarpen afektibo positiboa eta gainbalaratua egiteko joera dute, halako moldez non prozesua hasi aurretik aurreikusitako emozioen intentsitatea eta iraupena estatistikoki esanguratsuagoak baitira, berriz elkartu ondoren emakumeek sentitzen dituztenena baino. Horrela, egileek egiaztatzen dute berriro elkartu aurreko iragarpen afektiboa bizi-gogobetetasunaren eta bakardade sozialaren arteko konbinazioaren ondorio dela.

Familia biltzea ez da familia transnazionala definitzen duen elementu bakarra, ordea; Pascalek (2006), adibidez, biziraupena ere aipagarritzat hartzen du. Normalean, helmugako herrialdean dauden kideek, teknologiak emandako erraztasunen bidez, jatorrizko tokian geratu diren familiako kideekin komunikatzeaz gain, gizarte horren biziraupenerako ekarpen ekonomikoak egiten dituzte, eskuarki diru-bidalketak eginez, jabetzak erosiz edo familiaren enpresan inbertsioak eginez. Horiek horrela, esan daiteke familia transnazionalak ez direla aukera bat, egokitzapen baten emaitza baizik, eta horrek agerian uzten du halakoengan nagusi diren baldintzetara mugatzeko gaitasuna. Gainera, aldi berean, halako familiak erabat berregituratzen dira, eta berregituraketa hori roletan, generoan eta seme-alaben bizi-zikloetan zentratu daiteke.

Migrazioa hasten denean, familien desira nagusietako bat, banantze-etapa gogor baten ondoren, berriz ere ahalik azkarrena elkartzea dela dio Cárdenasek (2014) Bernhard *et al.* (2005), Bernhard *et al.* (2008) eta Gómez (2008) autoreen ideietan oinarrituta. Hala eta guztiz ere, Cárdenasek (2014) berak esaten duenaren arabera, berriz elkartzeko prozesuak urteak irauan dezake, harik eta, adibidez, legeko baldintza guztiak betetzen eta/edo hori egiteko nahikoa diru lortzen den arte; hori dela eta, asmoa familia biltzeko prozesua elkarrekin egitea izaten den arren, gehienetan banan-banan egiten da, seme-alaben adinaren arabera.

Orain arte aipatutako guztiaz gain, ezinbestekoa dirudi hausnartzea ea bizi-zikloaren une garrantzitsuetan (haurtzaroan edo/eta nerabezaroan, esaterako) banantzen diren familiak oraindik ere familia sentitzen diren edo, hobeto esanda, familia izatearen oroitzapena duten. Izan ere, Falicovek (2007) azaldu bezala, banantzean eguneroko bizitzan ehuntzen diren kanal emozionalak eten egin daitezke, familia-sistemako kide direla sentiarazten dietenak; eta, horrekin bat, Linares (2012) Cárdenas (2014) aipatuz azpimarratzen duen bezala, familiaren mitologia osatzen duen narratiba osoa eteten da.

Falicovek (2008) aipatu bezala, familia biltzen den unean, familian bizitzean beharrezkoak diren doikuntzak abian jartzen dira, eta kideen arteko harremanen estresa ia saihestezina da. Cárdenasek (2014) azaltzen duen bezala, berriz elkartutako familien antolaketa —atzerako funtzioak egokitzea beharrezkoa denean, adibidez— aldatu egiten da, kide batzuk ez daudelako eta, askotan, bestelako familia-konstelazio bat sortzen duten kide berriak daudelako; hau da, familia-kultura propioarekin berreratutako familiak eratzen direlako.

Aurretik aipatutako azterlanen arabera, afektibitate-iragarpenak errealitatera egokitu behar du, egoeretara egokitzeko gaitasuna bermatzeko, eta kontrol psikosoziala, ongizatea eta osasuna errazteko. Bitartekaritza-analisiak agerian uzten du balentzia eta intentsitate positiboa duen iragarpen afektiboak lotura negatiboa duela nahasmendu emozionalarekin, eta positiboa, berriz, bizitzarekiko gogobetetzea

handiagoarekin. Horregatik, iragarpen afektibo positiboak emozio negatiboen kontrolerako babes-faktoretzat hartzen dira, eta hori lotuta dago osasun orokor eta ongizate hobearrekin, nazioz gaindiko familia berriz elkartzeko prozesuaren ondorengo egoeran (Martínez-Taboada *et al.*, 2017).

Familiarteko banaketak dituen ondorioei dagokienez, gurasoen eta seme-alaben arteko banaketa horrek dituen ondorioetan jarri dute fokua zenbait ikerketak. Suárez-Orozco, Jinek eta Yeonek (2002) LISA proiektuaren barruan egindakoak, adibidez —385 gazte hautatu ziren ikerketan parte hartzeko—, ondorio jakin batzuk ateratzeko modua eman zigun. Ikerketa horretatik abiatuz Cárdenasek (2014) azaldutakoaren arabera, aipatzekoa da gurasoengandik bananduta egon diren neska-mutil edo seme-alabek joera handiagoa dutela depresio-sintomak agertzeko migrazioan gurasoengandik bereizi ez direnek baino; bereziki, gainera, bi gurasoengandik bananduak izan direnak aurkezten dituzte halako sintomak. Beraz, gurasoengandik banandutako adingabeen ondorio negatiboen artean, loturarako zailtasunak, erreakzio depresiboak eta portaera-arazoak dira aipagarrienak. Halaber, ez da ahaztu behar zenbait autorek aipatzen duten gazteen egokitzapen- eta erresilientzia-gaitasuna. Horrenbestez, Articok (2003) azpimarratzen duen modura, banaketarik luzeenak eta sintoma psikologikoen agerpen handiagoa elkarri lotuta daude.

Banaketaren historiak garrantzi handia du berriro elkartzeko prozesu horretan. Suárez Orozco *et al.* (2011) autoreek zehazten duten moduan, jaioterrian irauten duten seme-alabekiko loturari eustea eronka handia da, are gehiago banantzeak luzeak badira. Gurasoek —batez ere amek— eusten diote gehien seme-alabekiko lotura emozionalari, zenbait estrategiaren bidez. Gainera, Cárdenasek (2014) Campbell eta Flaman (2009) eta Tate (2011) aipatuz azaltzen duenez, mantendu den kontaktuaren ezaugarriek ere badute eragina elkartzean; kontaktuaren nolokotasuna, kalitatea eta maiztasuna dira ezaugarri aipagarrienak.

Cárdenasek (2014) azaltzen duenez, banantze-garaian hainbeste ahalegin egin ondoren, topaketak atsegingarriak izatea espero da, baina denbora-tarte laburretan banandu direnek eta gurasoetako batek bakarrik deskribatzen dute horrela. Banantze luzeetan, ordea, gurasoekin topo egitea arrotz batekin topo egitea bezala da (Suárez-Orozco *et al.*, 2011). Gurasoen eta seme-alaben itxaropenak desilusioak bustitzen dituela diote Artico (2003) eta Mitrani, Santisteban eta Muir (2004) autoreek: gurasoen itxaropena seme-alabek beren sakrifizioa eskertzea da; seme-alabek, aldiz, topaketaren edo familia biltzearen prozesuarekiko sentimendu anbibalenteak izan ohi dituzte. Suárez Orozcoren (2011) esanetan, haur edo nerabeek zaintzaileen edo lagunen falta suma dezakete aipatutako prozesu horretan, eta beren dolu-prozesua izan dezakete.

Horrez gain, Suárez Orozco *et al.* (2011) autoreen hitzetara itzuliz esateko, sentimendu nahasiak erraz

agertzen omen dira haur eta nerabeak familiarekin berriro elkartzen diren egunetik, baina pixkanaka banantzearen ondorioak gutxituz joan daitezke, eta nahasmendu tenporala ere bai.

Gainera, Cárdenasek (2014) Dreby (2009) eta Suárez Orozco *et al.* (2011) aipatuz esaten duenez, gurasoekiko lotura ere adingabeen adinaren arabera omen da: oso txikiak badira, amengandik emozionalki aldentzen dira; nerabeak badira, aldiz, oso modu independentean edo oldarkorrean jardun dezakete elkartzean.

Pedonek (2008) azaldutakoaren arabera, migratzaileen seme-alabek gurasoen banaketari aurre egiteko, beren afektuak aitona-amonei edo osaba-izebei helarazten dizkiete; batzuetan, maitasun-lotura hori trukerako txanpon bihurtzen da familia-rolen negoziazioan, eta familia-leialtasunak arriskuan jartzen dira.

Banaketa gertatzen denean eta ama-zaintzak beste batzuen esku uzten direnean, gizarteak emakumeak estigmatizatzen eta gaitzesten ditu, Gil Araujo eta Pedonek (2008) azaldu duten bezala. Gainera, maite dituen pertsonen babesa izan arren, emakumea bera errudun sentitzen da erabat (Mitrani *et al.*, 2004), ama gisa huts egin duela uste duelako. Cárdenasek (2014) Bernhard *et al.* (2005) zitatzuz esplikatzeko duen bezala: Latinoamerikako amak oso goraiatuak dira, askotan modu estereotipatuan, baina familia transnazionalaren errealitatearekin alderatuta, amek eta haien sare sozialak beren buruari ezarritako espektatiba handiek eragin negatiboa dute eredu kultural eta ideologikoekin jarraitzeko, eta horrek ezinegon eta estres handia eragiten die emakume batzuei.

Cárdenasek (2014) adierazten duen bezala, familia-banantzeak balio kultural handia izan dezake, harremanak sendotzea eta familia nuklearretik harago ere loturak eta babesa mantentzea adieraz dezakeelako. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea nazioz gaindiko zenbait familia-banantzek, distantzia geografikoa luzea bada eta desberdintasun sozialak, ekonomikoak, politikoak eta kulturalak handiak badira, dimentsio berria hartu dezaketela.

Bestalde, Tatek (2011) dioenez, beste kultura batean murgiltzean, herrialde hartzaileko egokitzeko eta bertan finkatzeko beharrezkoak diren doikuntzek migratzaileei aukera ematen diete ohitura zaharrak eta haien arau kulturalak proban jartzeko, eta, horrela, bestelako interpretazio kultural bat egin behar izaten dute, beren praktika eta estrategien bidez, loturei eta koherentziari eusteko.

Aipatu diren zailtasun eta arazoak kontuan izanik, Cárdenasek (2014) azpimarratzen duen modura, ez da ahaztu behar familia bakoitzak bere bateratze-prozesua eta bateratze-esperientziak dituela, baina fase honetan aurkitu daitezkeen zailtasunek eragina dute, besteak beste, baliabideak eskuratzean eta testuinguru berriaren beharrei erantzutean, bai eta familia-harremanen kalitatean eta estiloan ere. Gainera, orrialde hauetan adierazi dugun bezala, eta

Tatek (2011) jasotzen duen modura, kide bakoitzak bere modu berezia du banantzera egokitzeko eta egoera horri aurre egiteko, eta horrek eragina izan dezake gerora, elkartzea erraztu edo tentsioa eta gatazka areagotu baitezake.

6. Metodologia

Atal honetan, besteak beste, ikerketa honen izaera azalduko dugu, eta alderdi hauek zehaztuko ditugu: zer motatako ikerketa gauzatu den, zer-nolako teknikak erabili diren, zein diren laginaren ezaugarriak, eta lortutako emaitzak zer modutara antolatu diren.

Ikerketaren izaerari dagokionez, ikerketa kualitatibo bat egin dugu; besteak beste, kuantifikazioa saihestu nahian, elkarrizketatuen narratibak gailendu nahi izan ditugu Herrera Hernández autoreak (2017) Taylor eta Bogdan (1986) aipatuz nabarmetzen duen bezala; ikerketa kualitatiboa datu deskriptiboak sortzera bideratzen da, hala nola pertsonen hitzak eta diskurtsoak, halakoak ahoz eta/edo idatziz adieraziz; gainera, pertsona horien jokabide behargarria ere badago.

Aukeraturako ikerketa-diseinuari dagokionez, metodo fenomenologikoa hautatu da. Aztertutako laginaren bizi-esperientziak aztertuta, familia berriz elkarteari buruzko bizipenetan oinarrituta, amen eta seme-alaben errealtateak edo bizipenak deskribatzen dira ikerketa honetan. Gainera, Lealek (2000) gehitzen duenez, kasu honetan lagina osatzen duten pertsonen bizi-mundua ulertzea bilatzen da metodo honen bidez, bizi izandako eta beren barne-esparruko egoerak interpretatuz. Horregatik guztiagatik, elkarrizketatu diren pertsonen bizi-esperientziak entzun eta aztertzeke asmoz hartu du ikerketa honek diseinu fenomenologiko hau.

Egin beharreko ikerketaren definizioari dagokionez, esplorazio-ikerketa bat da, eta errealtate bat aztertzea du helburu, hala nola familia berriz elkartzea eta errealtate horrekin lotutako arazoak; izan ere, errealtate hori bizi izan duten familien esperientzia nolakoa izan den aztertu nahi da. Ikerketaren garapenean zehar agerian geratu den moduan, familien berrelkarketa eta horrek dakartzan arazoak gutxi aztertutako ikergaia da —are gehiago, ia batere ez da aztertu esperientzia pertsonalak aintzat hartuta—, eta guk gai hori ezagutu nahi izan dugu gorago zehaztu ditugun helburuetan oinarrituta.

Laginari dagokionez, Urola Kostako bi herri hartu dira abiapuntu gisa: Azpeitia eta Zarautz. Guztira, hamabi elkarrizketa egin dira: hamar amari eta bi semeri. Elkarrizketa guztiak 2022ko martxotik apirilera bitartean egin ziren, hilabete bateko epean.

Azpeitian, banakako zazpi elkarrizketa erdiegituratu egin dira guztira, eta Zarautzen, banakako bost elkarrizketa erdiegituratu —denak ere Zarauzko Gizarte Zerbitzuetan—. Horiek horrela, bi profil nagusitzen dira: 32-58 urte bitarteko ama

migratzaileak eta haietako biren seme-alabak (22 eta 35 urtekoak)¹.

Banakako elkarrizketa horiei dagokionez, esan bezala, profila bi taldetan bereizi daiteke: Azpeitian egindako zazpi elkarrizketetatik bost migrazio-prozesua seme-alabarik gabe egin zuten ama migratzaileei egin zaizkie; beste biak, berriz, elkarrizketatutako ama migratzaileen bi semeri egin zitzaizkien. Azpeitiko elkarrizketatu horiei dagokionez, kontaktua elkarren arteko pertsona ezagunen bitartez egin zen; modu horretara, lehenago elkarrizketatu genituen emakume batzuek eman ziguten hurrengo emakume elkarrizketatuen kontaktua. Bestalde, Zarautzen egindako bost elkarrizketak ama migratzaileei egin zitzaizkien.

Ikerketaren helburu orokorra eta helburu espezifikoak kontuan hartuta, antzeko ezaugarriak dituzten profilak hautatu dira; zehazki: ama migratzaileak, gehienak latinoamerikarrak (elkarrizketatutako ama bat da salbuespena, armeniarra baita); seme-alabak jatorrizko lekuan utzi behar izan zituzten amak; eta, azkenik, denboraren poderioz seme-alabak sorterritik ekartzea lortu duten amak.

Bestalde, bi semeen profilarri dagokionez, biek ere ezaugarri komunak dituztela aipa daiteke. Esaterako: biak mutilak dira, adinez gazteak eta, esanguratsuen, beren amek migrazio-prozesua hastean, biak geratu ziren jaioterrian amonekin. Aldeak ere badaude, ordea; aipatzekoa da, adibidez, bakoitzak jaioterrian amarengandik urrun igaro zuen denbora: batak 8 urte igaro zituen (2 urte zituenetik 10 urte zituen arte); besteak, berriz, 2 urte (22 urte zituenetik 24 urte zituen arte).

Horregatik, probabilitaterik gabeko lagin mota bat dagoela esan daiteke: kasu-eredu lagin mota, gehienetan ikerketa fenomenologikoetan erabiltzen dena.

Azkenik, datuak biltzeko erabili diren teknikei dagokionez, teknika bakarra erabili da: elkarrizketa. Elkarrizketaren alde egin da, datuak biltzean ikerketa kualitatiboko oso teknika erabilgarria delako; Tononek (2009) Alonso (1999) zitatuaz azaltzen duen modura: elkarrizketa teknika baliagarria da informazio pragmatikoa lortzeko, subjektuek beren praktika indibidualetan eta irudikapen sozialen sisteman nola jarduten eta berreraikitzen duten jakiteko, eta gizabanakoaren edo subjektu baten erreferentzia-taldearen jokabidearen zentzu soziala eraikitzea lortzeko, jakintza pribatuen multzo bat bilduz.

Era berean, elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen artean aurretiazko harremanik ez zela kontuan izanda, lehen hartu-emanabegitsua izatea nahi zen. Horregatik, elkarrizketa lagunartekoa balitz bezala egitea iruditu zitzaigun teknikoki aproposena.

¹ Elkarrizketatuen pribatutasuna eta anonimotasuna gordetzeko asmoz, hemen ageri diren izenak ez dira haien benetako izenak.

Elkarrizketei dagokienez, esan bezala, hamabi elkarrizketa sakon erdiegituratu egin dira guztira. Sakoneko elkarrizketen barruan, elkarrizketa erdi garatuak izan dira; hau da, galdera erdi itxiak erabiliz, elkarrizketatzailearen kontrola egon da elkarrizketak aurrera eramateko orduan. Modu horretara, hautatutako gaiari buruzko ezagutzak sakontzea izan da helburua.

7. Familia biltzeko prozesuan identifikatutako arazo esanguratsuenak

Jarraian, egindako elkarrizketen emaitzak azalduko dira, lanaren hasieran mahaigaineratutako helburuak abiapuntutzat hartuta. Asmoa ikergaiaren errealitatea sakonki ezagutzea da, eta, horretarako, elkarrizketatuen hitzak berreskuratuko ditugu.

7.1. Migrazio-prozesua hastearren arazoak

Hasteko, migratzearen arazoak aztertuko dira, migratzearen arazoak ezagutzea izan baitzen lehen helburuan zehaztu zena. Elkarrizketatu gehienak Amerikatik etorriak dira; zehazki, Latinoamerikatik: Honduras, Nikaragua, Txile eta Boliviatik. Bi elkarrizketatu europar ere badaude, Armeniatik migratu zutenak. Hala ere, esan daiteke ia elkarrizketatu guztien arazoak berdinak direla: herrialdearen egoera politikoa edo jatorrizko egoera ekonomiko eskasa. Bosgarren elkarrizketatuak esaten duen modura:

Primero está la situación del país, ¿no? Sabemos que Nicaragua pues es un país de bajos recursos. Me encontraba sola, madre de una niña; en ese tiempo, tenía cuatro años y medio mi hija. Pues tenía deudas, necesidad y... decidí venirme. (Pilar, ama)

Gainera, bikote-harremana eten ondoren migrazio-prozesua hastea erabaki zuen ama bat ere bada elkarrizketatuen artean; pertsona horrek, banandu, eta seme-alaben zaintza eta erantzukizun guztia bere gain hartu zuen:

Por la económica. En mi país, pues allá tenía yo tres niños. Yo me vine con 23 años; ya en esa edad, nos consideran mayores allá. Entonces ya era muy difícil conseguir trabajo y también que no alcanzaba con lo que tenía y ya me había separado del papá de los niños. (Isabel, ama)

Aurrekoaren antzera, hemen ere azpimarratzekoa da ama bakarren errealitatea, elkarrizketatu batek ama bakarra izateak dituen zailtasunak mahaigaineratu eta erabakiaren zati gisa identifikatzen baitu:

Bueno, todo por él... Cómo te digo... Sacar adelante a mi hija, ¿no? Cuando hay oportunidad de venir, se viene. Casualidad, mi hermano me trajo. Así que fue por eso, más que todo, para surgir. Porque soy mamá soltera. (Carmen, ama)

Hala ere, bestelako arazoak ere aipatu dira; besteak beste: senarrarengandik banandu eta babesteko migratzea erabaki zuela esan zigun batek; bere herrialdean mugimendu ekologisten inguruan aritu eta inguruko beste kide batzuek jasandako presioen ondorioz migratzeko prozesua abian jartzea erabaki zuela aitortu zigun beste batek; azkenik, jada familiako kide batzuk Euskal Herrira migratu zutela, eta, horren ondorioz, berak ere migratzea erabaki zuela adierazi zigun hirugarren batek.

Ikus daitekeenez —hasieran ere halaxe zehaztu dugu—, migrazio-prozesuak hasteko arazoi gehienak kanpo-faktoreek eragindakoak dira, eta izugarriko eragina izaten dute emakumeengan. García Borregok (2010) esaten duenez —Cárdenasi (2014) hartu diogu aipamena—, etorkizuneko estrategiak eraikitzen dituzte, seme-alabak herrialde sozioekonomiko garatuago batean bizitzearen abantailak ikusaraziz, emakume gisa eskuratutako eskubideez gain, bai bikote-harremanetan eta bai banaka ere. Errealitate hau ikusi izan da analisisian, amek “etorkizun hobe baten bila” etortzearen nahia aipatzen dutenean, besteak beste.

7.2. Jatorrizko herrialdean geratutako seme-alabek amek alde egin izanaren arazoia jakin zutenekoa

Bigarren helburuarekin bat eginez, migrazio-prozesuari ekin aurretik amek seme-alabei zer azaldu zieten ezagutu nahi genuen; hau da, amek migrazio-prozesua hasi aurretik seme-alabei migratzearen arazoak azaltzeko aukerarik izan zuten, eta, batik bat, haiek jaioterrian uztearen arazoak ulertarazteko aukerarik izan zuten.

Ametako hiruk horri buruz adierazitakoaren arabera, ez omen zuten izan aukerarik seme-alabei arazoak azaltzeko, adin txikikoak baitziren:

Mi hijo tenía dos años y entonces, cuando le dejé, lo dejé con mi suegra, así que vine sin mi hijo hasta aquí, porque no tenía tanto dinero como para invertir a traer al hijo, porque, además, no sabía ni a dónde me iba. La verdad [es que] primero tenía que construir tu vida; la verdad [es] que no le he dado explicación a nadie. (Lucía, ama)

No, estaban muy pequeños. La mayor tenía seis años, tenía uno de cuatro y uno de dos. Ellos no... no comprendían eso entonces. (Isabel, ama)

Hala ere, nahiz eta adin txikiko umea izan, ama batek izan zuen aukera bere alabari arazoak azaltzeko; berak azaltzen duen modura, ordea, alaba txikiegia zen amak azaltzen ziona ulertu ahal izateko:

Sí..., le conté..., yo le decía, le explicaba todo; pero claro, era muy pequeña para entender. Ahora, ya va entendiendo un poco más, tiene 12 años, pues ya me entiende más por qué le..., por qué me vine yo todo..., y pues eso. (Pilar, ama)

Eta, aurreko elkarrizketatuak bezala arrazoiak azaltzeko aukera izan zuen beste ama bati dagokionez, aurreko horren aldean desberdintasun txiki bat aipatu behar da honako honen kasuan: semea adinez nagusia izatea, alegia.

Horrela, bada, esan daiteke migrazioari ekin aurretik, orokorrean, ez dela banaketari buruzko lanketarik egiten familia barruan seme-alaben adina dela eta.

7.3. Banantzeak sortutako rol-banaketak

Orain arte azaldu dena kontuan izanik —migratzearen arrazoiak eta seme-alabek arrazoi horiekiko zuten ezagutza—, orain ama eta seme-alabak bananduta egon ziren denbora-tartea hartuko dugu gaitzat. Elkarrizketatu gehienak urteak egon dira seme-alabengandik urrun; horiek horrela, bananduta igarotako denboran familiaren rol-banaketa nolakoa izan den jaso nahi izan da; eta, horrekin bat, banaketa horrek nola eragin duen familia-dinamikan.

Ikerketari ekitean azaldu dugun modura, hasieran uste zen amek gertuko pertsona bati (famiiliako kide bati, lagun bati...) eskatzen ziotela umeen zaintzaz arduratzeko; zenbaitetan, gainera, ama zaintza horrekin lotutako erabakietatik kanpo geratuz joaten zen.

Alde batetik, elkarrizketatu guztiek ezaugarri komun bat azaldu dute: seme-alabak famiiliako kide batekin utzi zituztela —zehazki, aitona-amonekin—:

Con mi suegra. Sí, porque, eso es, con mis suegros. Hay otras cosas que no quiero contarlas, pero bueno... No tengo padres, pero tengo suegros. Entonces, con ellos. (Lucía, ama)

Con su abuela paterna. Con ella se ha quedado. (Ana, ama)

Amek famiiliako beste kide baten esku uzten dute beti haurraren zaintza; banaketa gertatzen denean eta ama-zaintzak beste batzuen esku uzten direnean, gizarteak emakumeak estigmatizatzen eta gaitzesten ditu, Gil Araujo eta Pedonek (2008) azaldu duten bezala.

Elkarrizketatuak izan diren bi semeek honela deskribatzen dute aitona-amonekin igarotako garaia:

Con mi abuela, con mi otra abuela, ella es la madre de mi padre; y aquí, mi abuela que está aquí, [es] la madre de mi madre. Sí, me quedé con ella. Vivíamos muy cerca, entonces la mejor decisión era ir a quedarse donde mi abuela, y así fue, me fui adonde la abuela. Mi abuela vivía... bueno, solo con mi abuelo y cerca vivía mi tía. Entonces estaba entre la familia, pero nunca..., nunca es lo mismo. Pero bueno, mi abuela es más cuidadosa que mi madre conmigo. Su regalón, su favorito en todo..., y, no sé, estuve bien con ella, estuve muy bien con ella. Es que era muy buena, me preparaba siempre el desayuno a la mañana y eso mi madre no lo hacía.

O llegaba del trabajo tarde y ella me dejaba la cena preparada, entonces en ese sentido fue..., fue bueno. Echar en falta, en ese sentido, a mi madre, no..., porque mi abuela suplía todo. (Manuel, semea)

Pues geranitzen nere aitona ta amonakin. Que nik beai esate nioben aita eta ama, literal. Ta jende asko kaletik ta igual geratze zan arrituta ta nola que aita o ama. Ta han nere amamak 60-70 urte zauzken eta nola ama? Ta hori bai, ondo. Esan nahi det, problemaik ez tet euki. (Gorka, semea)

Ikus daitekeenez, biek oso oroitzapen positiboak dituzte aitona-amonekin igarotako denboraldiaz. Laugarren elkarrizketatua, Manuel, hogei urte inguru zituela geratu zen aitona-amonekin, eta, esaten duenez, oso zaindua sentitzen zen eta bere egunerokoan ez zuen amaren falta sumatzen, amonak, bere ustez, oso zaintza-lan ona egin baitzuen. Bestalde, zazpigarren elkarrizketatua, Gorka, bi urte zituela geratu zen aitona-amonekin, eta, bere esanetan, aitona-amonak guraso bihurtu zitzaizkion.

Hasieran aurkeztutako beste alderdi bati dagokionez, amak zaintzan zer-nolako rola jokatzen duen jakiteko, seme-alabek migrazio-prozesuari ekiteko erabakia nork hartu zuen jakin nahi izan genuen. Kasu guztietan, batean izan ezik, ama izan zen erabaki hori hartu zuena:

A ver, la decisión era desde el principio, yo tenía decisión de que quiero traer a mi hijo. Lo que pasa es que no había posibilidades de traerlo, ¿no? Porque no tenía suficiente dinero, no tenía pues... suficiente. No tenía porque aquí tenía requisitos que no era tan fácil para un extranjero. Al final, tenías que tener, pues, si querías traer con papeles a tu hijo, tú tenías que vivir aquí tres años, pero yo los primeros tres años no tenía papeles y tal... Y luego, ya cuando ya tuve la oportunidad de traerlo, hice los papeles, porque yo quería que mi hijo viniera ya legalmente aquí... (Lucía, Gorkaren ama)

No más tuve los papeles acá. A los tres años y medio, bueno a los tres años cumplidos, hice la documentación que es la reglamentaria, que tenemos que pasar tres años para hacer los papeles. Y pues pasó ese tiempo y a los tres años y medio los fui a traer. (Isabel, Manuelen ama)

Horiek horrela, argi geratu da seme-alabak migratzeko erabakia amak hartzen duela, eta erabakia faktore nagusi baten menpe dagoela: egonkortasun ekonomikoa. Amek egonkortasun ekonomikoa eta, zenbaitetan, egonkortasun legala lortzean erabakitzen dute seme-alabak ekartzea. Cárdenasek (2014) esandakoak bat egiten du elkarrizketatuek esandakoarekin: berriz elkartzeko prozesuak urteak iraun dezake, harik eta, adibidez, legezko baldintza guztiak betetzen eta/edo hori egiteko nahikoa diru lortzen den arte; hori dela eta, asmoa familia biltzeko prozesua elkarrekin egitea izaten den arren, gehienetan banan-banan egiten da, seme-alaben dinaren arabera.

Garbi ikusi da, gainera, seme-alabak amek behartuta etortzen direla askotan, nahiz eta haien nahia hori ez izan. Hala ere, seme-alabek migratzea amen erabakia izan zein ez, aipatzekoa da seme-alaben eguneroko zaintzei buruz hartzen diren erabakiak, hein handian, jatorrizko zaintzaileen esku geratzen direla. Horregatik, amaitzeko, interesgarria da amek zaintza-egoera horrekin lotuta izandako sentimenduak aipatzea:

Fue... creo que fue la decisión más difícil que he tomado en mi vida y la que más me dolía. (Pilar, ama)

Bueno, ¡qué te puedo decir!... Al comienzo, era fatal porque... Cuando seas madre, me entenderás... Era duro, es muy duro, pero se supera, se supera. Teniendo en cuenta el motivo que te lleva a hacer lo que haces... (Carmen, ama)

Antes de juzgar a tus hijos, tienes que verte a ti por dentro. Yo sí reconozco mis errores, pero ellos no me entienden. Lo afectivo se pierde. Yo sé que, como madre, he fallado, he sido mala madre. (Marta, ama)

7.4. Amaren eta semeen espektatibak

Arreta familiak bananduta igarotako urteetan jarrita jarraitu genuen, tarte horretan zer-nolako espektatibak sortzen ziren identifikatu eta kontrastatu nahian. Galdera jakin batzuen erantzunak aurkitzea zen asmoa; besteak beste: denbora-tarte horretan beren arteko kontaktua nolakoa izan zen, harreman horrek amei aukera eman ote zien seme-alabentzat erreferentziazko heldua izateko, eta berriro elkartzek eragindako errealitateak eta hasierako espektatibek loturarik ba ote zuten.

Hasteko, kontaktuari dagokionez, elkarrizketatu gehienek diote beren seme-abalekin kontaktua mantendu zutela, batez ere teknologiarik esker:

Estuvo dos años más o menos, dos años. Pero nos contactábamos por Messenger, porque todavía no había WhatsApp. Todavía no estaba. Por Messenger o por cámara; [...] nos podíamos contactar con él. (Ana, ama)

Bestalde, badira herrialdera bisitan joateari esker urte horietan seme-alabak aurrez aurre ikusteko modua izan zutenak:

Pues nosotros íbamos ahí cuando cogí los papeles, que era en 2005, cuando cogí la primera tarjeta y fui allí por un mes. Allí lo vi a él y luego pues por teléfono y... teníamos contacto. Luego iba mi marido y... igual los dos no podíamos ir a la vez, porque uno tenía que estar trabajando y tal..., pero así, mediante teléfono y viendo ahí... esos ocho años. (Lucía, ama)

Halaber, badaude ia kontakturik mantendu ez zuten familiak ere; besteak beste, seme-alaben jarrera

negatiboa edo herrialdeen arteko ordu-aldea tarteko, amei ezinezkoa egiten zitzaielako kontaktu hori mantentzea:

Casi... muy poca relación, porque ellos no querían. Yo trabajaba de interna y las dos horas que me daban íbamos antes..., no era la facilidad de ahora con el internet y eso... Las dos horitas que me daban no me coincidían para poder hablar con ellos. De muy poca..., el fin de semana o así. Y más me hablaban cuando querían algo, pero así comunicación fluida no tuvimos. En ese caso, no... (Isabel, ama)

Pues hablábamos y eso, pero... este como al venirme pues ella estaba como un poco resentida. Muchas veces casi no se ponía ni al teléfono, y eso a mí me... o sea, me sentía fatal. Yo decía: "tengo que ir, y tengo que traerle y estar con ella". Porque ella se sentía, claro, que... le había abandonado. En parte sí, porque uno se viene, no le vuelves a ver en años... Es que yo no aguantaba las horas de que se llegara la hora para ir a hablar con ella. Y a veces, cuando las primeras llamadas, es que yo no podía ni hablar, solo era verla y..., y [se] me había un nudo en la garganta y no podía ni..., nada. (Pilar, ama)

Pues mira, yo prácticamente todos los días le llamaba. Todos los días. Pero ya te digo, con ese resentimiento que ella llevaba, había momentos que ella no quería ni hablarme. Por eso te digo, es algo un poco duro, porque hay un momento..., porque ella misma me reprochaba, me decía: "te has ido, me has dejado, no quiero hablar contigo"; así me lo decía. (Carmen, ama)

Bigarren elkarrizketatuak, Isabelek, dioena berreskuratu eta beste elkarrizketatu batzuek azaldutako errealitatea ere aipatu nahi dugu: seme-alabek, askotan, ez zuten amarekin kontaktua mantendu nahi, baina bai, ordea, amak dirua edo gauza materialak bidaltzea. Halaber, argi ikus daitekeenez, "gaitzondo" edota "gaitzespen" hitzak behin eta berriz azaltzen dira; hau da, seme-alabek amekiko abandonu-sentimendua zuten, horrek haserrearazi eta ondoezetik sentiarazten zien, eta horregatik ez zuten kontaktua mantendu nahi.

Sentimendu eta erreakzioen harira, kontaktu horrek zer-nolako eraginak izan dituen jakitea ezinbestekoa suertatzen zen. Familia gehienek kasuan, umeentzat ama ezezagun bat zen, eta bananduta igarotako denborak eragin bortitzak izan zituen haiengan:

Eske nere gurasun rola indebe nere amama ta nere aitonak. Ta ordun es que... eztakit nola esplikau, baino faltan..., es que no es que les eche..., es que no les he echau de menos. Sabía quiénes eran, que es mi madre y mi padre, pero es que no les echaba de menos. Es que ezta tampoco decir no les echaba de menos, pero es que no sé cómo explicar... Es que enitun ezagutzen berez. Es que enitun ezagutzen. Oso zaile da. (Gorka, semea)

Ikus daitekeenez, errealitate bera oso modu desberdinean bizi izan zuten ama-eme horiek. Amak ikaragarri sufritzen zuen semea urruti edukitzeagatik eta ezin ekartzeagatik; semeak, aldiz, bere adina zela eta, egunerokotasunean amona eta aitona zituen erreferentziazko pertsona gisa, eta, berak esaten duen modura, ez zuen gurasoen falta sumatzen, ez baitzuten ezagutzen. Gainera, gurasoekin elkartzearen inpaktua ere aipatzen du: gurasoak, beti ordenagailuz ikusten zituenez, ospetsuak zirela uste zuen; ez zituen guraso gisa irudikatzen, baizik eta ospetsu ezezagun gisa.

Sí, porque, para ellos, más para el niño pequeñito que lo deje de año y medio, era una desconocida para él. (Isabel, ama)

Al final, uno pierde un montón, pierde un montón a los hijos. Yo, cuando le he traído aquí, este fue un cambio, porque... ella como que no me conocía..., fue como volvernos a conocer, volvernos a acostumbrar las dos... Un poco difícil. (Pilar, ama)

Aurretik aipatutakoa abiapuntu gisa hartuz, banaketak dakarren gogortasunaren ondorioz, espektatiba utopikoak sortuz joaten direla esan daiteke: semeek ez zuten amagandik espero zutena aurkitzen; eta amei ere gauza bera gertatzen zitzaion.

Seme-alabek "abandonu"-sentsazioa aipatzen dute behin eta berriz elkarrizketa askotan: Casasek (2008) azaltzen duen bezala, haur batzuek abandonu gisa sentitzen dute beren amaren migrazio-prozesua. Gainera, Fajardo *et al.* (2008) autoreek Sam eta Berry (1995) eta Mirsky (1997) aipatuz adierazi duten bezala, jokabide-arazoak eta desordena psikopatologikoak izateko arrisku-talde gisa identifikatu dira nerabe etorkinak. Etorkin gazteek bi desordena emozional mota izaten dituzte: alde batetik, jokabide-desordenak, bereziki jokabide antisozialak; eta, bestetik, nortasun-gatazka eta autoestimua txikia. Elkarrizketatuek, jokabide antisozialak mahaigaineratzeaz gain, "errebeld" hitza ere erabili dute beren seme-alaben jarrerak azaltzeko.

Laburbilduz, Sorensenek (2008) dioen modura, familia transnazionalaren bizitza prozesu ekonomiko, politiko eta sozial konplexu eta interkonektatuen eraginpean egotea eragiten du gurasoen eta seme-alaben arteko kontaktua mantentzeko, baina ondorioak latzak dira, batik bat seme-alabentzat.

Seme-alabengandik banantzean, amek tristura eta etsipena sentitzen dituztela azaltzen du Cárdenasek (2014) Bertino (2006) eta Bernhard *et al.* (2005) zitatu. Ama ugari aipatu dute emozio hori, eta denek ere gehitu dute ondoeza sortu zela hona bakarrik etortzearen tristurak eta seme-alabak urrun edukitzeak.

7.5. Familia biltzean sortutako arazoak

Aurreko ataletan, bi etapa bereizi dira: banandu aurrekoa eta banantzeak irauten duen tartekoa. Orain, berriz,

familia bildu ondorengo etapa landu nahi dugu. Familia biltzean, arazo asko agertzen dira urteak bananduta eman dituzten amen eta seme-alaben artean.

Era raro. Muy raro, porque claro yo tenía una niña de dos años y es como ¡uff...!, ¿no? ¿Otra persona? Al final, ocho años sin vivir con él. Sí que era raro, pero por meses. Después de dos meses ya..., sí. Claro, él tenía su carácter, nosotros teníamos el nuestro y al final teníamos que adaptarse uno al otro, pero yo creo que en dos meses ya hemos conocido uno al otro..., sí. Bien, bien. Sin más. (Lucía, ama)

Con la niña mayor, muy difícil. Los primeros dos años estando ella aquí, muy muy difícil, porque ella estaba agresiva, no permitía que le regañase, ni nada. Siempre estaba a la defensiva. También ella tuvo el problema de adaptación aquí. Le costó mucho, porque le hicieron *bullying* y eso; entonces ella se volvió contra a mí. Todo lo que le pasaba a ella me... me lo machacaba a mí. Entonces ella en casa tenía una conducta muy rebelde: quebraba todo, así sacaba ella su enojo. (Isabel, ama)

Yo sabía que estaría más grande, todo esto, pero... no me imaginaba que tanto. Y al verla tan grande, diferente, ya no era la misma niña..., ya era todo distinto, me había perdido un montón de etapas de ella... Sí..., yo me esperaba hallarla, no sé..., la misma niña que había dejado. Por lo menos, en los mismos..., las mismas costumbres, las mismas manías..., y no. Había cambiado. Casi en todo. Sí..., el primer año, muy difícil, muy difícil. Porque, claro, mi hija había perdido la confianza en mí. Al principio, muchas veces me veía como una desconocida. Entonces [tuve que] ganármela, ir poco a poco con ella. (Pilar, ama)

Aunque no te creas, si nos saltamos al momento que ella llegó, o sea, fue un momento en que, para mí, era como empezar de nuevo y, [para] ella, también. Porque al dejarla pequeña y venir con una mentalidad de allá de, de ocho años, que llega diferente; ella ya tenía otra mentalidad y yo..., para mí, estaba como una mentalidad de los tres años que la dejé; entonces, fue como empezar de nuevo. Entonces, para mí ahí también fue un poco duro, en su educación empezando de nuevo. (Carmen, ama)

Lo chocante es averiguar que no conoces a tus hijos. (Marta, ama)

Aztertutako arazoak nabarmen-nabarmenak dira: amek eta seme-alabek hutsetik hasten dute beren arteko harremana, rolak berrituz banatu behar dituzte, konfiantza berrituz sortu behar da; laburbilduz, berrituz elkar ezagutzeko bidea urratzen hasi behar izaten dute. Carrasco *et al.* (2009) autoreen esanetan, migratzen duten eta senide batek edo gehiagok osatzen dituzten familiak zuztar-zuztarretik aldatzen dira eta krisialdiak izan ohi dituzte. Terrén eta Carrascoren (2007) esanetan, banantzearen beraren eta familiako

kide guztiei eragiten dieten planak eta itxaropenak berregokitu behararen ondorioz gertatzen da hori. Alde horretatik, familia berriz elkartzeko prozesu horri dagokionez, harremanak bizirik mantentzeko ahalegin ausartak egiten diren arren, aipatzekoa da Falicovek (2008) Falicov (2003) zitatzaz azpimarratzen duena: migrazioaren ondorioz banandutako seme-alaben eta gurasoen arteko topaketa gertuago dagoela pertsona arrotzen arteko topaketatik benetako familia baten topaketatik baino. Errealitate hori argi eta garbi ikusi da elkarrizketetan, non gurasoak eta seme-alabak ezezagun gisa identifikatzen diren. Banantze luzeetan, gurasoekin topo egitea arrotz batekin topo egitea bezala dela azpimarratzen dute Suárez Orozco *et al.* (2011) autoreek.

Horrela, bada, elkarrizketatuek Falicovek (2008) aipatzen duena azaltzen dute: familia biltzen den unean, familian bizitzean beharrezkoak diren doikuntzak abian jartzen dira, eta kideen arteko harremanen estresa ia saihestezina da; hau da, berriro elkar ezagutu beharrak egoera estresagarri bat suposatzen du bai amarentzat eta bai seme edo alabarentzat ere.

7.6. Laguntza-harremanak

Azkenik, prozesu honetan guztian laguntzen duten beste pertsona batzuek —zehazki, senitartekoez eta profesionalak— zer-nolako presentzia duten ere jakin nahi genuen.

Elkarrizketatu gehienek ez dute laguntza profesionalik izan familia biltzean, baina denek aipatzen dituzte beren udalerriko Gizarte Zerbitzuak:

No... Yo todos los papeles los hice yo misma. Solamente vine al Ayuntamiento, que era que ellos tenían que venir y ver nuestra casa, a ver si estaba el niño, el que iba a venir, si iba estar en buenas condiciones y todo eso. Pero el resto de todos los papeleos, yo no cogí ni un abogado ni nada; todos los papeleos que me han pedido lo[s] hice yo misma [...]. Todo yo. (Lucía, ama)

No, no, no, no. Lo único que nos ayudó a nosotros, en ese tiempo..., eran ayudas económicas del Ayuntamiento. Ahí la vivimos así, solos, solos, solos. Sin..., bueno, somos muy creyentes y confiamos mucho en Dios. Y entonces nos arrimábamos a él y le pedíamos a él. Entonces eso nos ayudaba. (Ana, ama)

Badago, bestalde, senitartekoan laguntza izan duen familiarik ere:

Sí, mi madre nos apoyó recibiéndonos en su casa. Ella nos recibió en su casa, estuvimos allí viviendo con ella... Tenía a mi hermana, que ella también nos ayudaba económicamente, pero a veces..., claro uno como no estaba acostumbrada a pedir, a veces no teníamos ni siquiera para comprar una barra de pan, pero no le decíamos a nadie. Lo vivíamos solos, nosotros, y con lo que había. (Ana, ama)

Seigarren elkarrizketatuak, Carmenek, laguntza handia izan duela azpimarratzen du, bai laguntza profesionala eta bai inguruko jendearena ere:

Sí, he tenido bastante. La verdad es que mucha gente me ha ayudado aquí. Por ejemplo, si era por mi hija, en parte del Ayuntamiento me lo ha puesto así el colegio. Con la beca de mi hija, también, me han ofrecido cualquier cosa, ayuda de los cursos, o sea, más actividades, extraescolares..., o sea, muchas cosas que le podrían colaborar ahí. Y en parte a mi persona, con la gente que yo estaba bastante también, sí. ¡Porque había gente que, o sea, me la aceptaron! Con eso ya..., en casa y todo, y como al fin y al cabo estaba solo, éramos tres. (Carmen, ama)

Zarauzko elkarrizketatuei dagokionez, guztiek izan dute laguntza profesionala; izan ere, familia biltzeko baliabideetara bideratu dituzte beren erreferentziazko gizarte-langileek. Kasu horretan, ez da planteatutako hipotesia betetzen; bai, ordea, Azpeitian elkarrizketatutako kasuan, elkarrizketatu gehienek ez baitute laguntzarik jaso prozesuan zehar.

Aurrekoa kontuan izanik, elkarrizketatu guztiak ondorio berera iritsi dira: halako prozesuetan laguntza profesionala izatea oso garrantzitsua da, bai orain arte aipatutako arazoei aurre egiteko eta bai seme-alaben ongizatea bermatzeko.

Sí..., en este caso, sí. Cuando se dejan los hijos en esa etapa, y vienen acá ya en una preadolescencia y están con esa rebeldía, bueno, digo yo algo..., un psicólogo o, bueno, aunque no fuera un psicólogo o una persona de fuera que hablara con ella, pues a mí me hubiera venido bien, pero siempre se me denegó. (Isabel, ama)

Sí, porque se necesita aceptar que vas a traer a tus hijos y cómo les va a ir aquí. (Ana, ama)

Sí, sí..., yo creo que sí. Porque a veces, igual, ellos, como dices, tú ves un..., no sé..., igual una referencia con otra persona adulta y ya con uno que ya ven que pueden..., no sé..., o sea, que le puedan dar un consejo, hablar con ella y ella no pueda decir "ah, no, no quiero saber nada". Yo creo que sí viene bien. O cuando están aquí más que todo, creo..., o también, prepararte antes psicológicamente que..., cómo vas a ser. Porque igual uno se crea unas expectativas que puede que sí, puede que no. (Pilar, ama)

8. Ondorioak

Bai zati teorikoan eta bai zati enpirikoan landutako guztia kontuan izanik, ulergarria da errealitate hau sentimendu eta emozio negatiboekin lotuta egotea: bai amen errealitatea, migrazio-prozesua hasteko erabakia hartzen dutenetik seme-alabekin berriro elkartzeko aukera duten arte; eta bai seme-alabena, haurtzaroan edo nerabeztarokoan amaren falta sumatzeak errealitate izugarri bortitza bizitzera behartzen dituen gero.

Emakume eta ama horiek halabeharrezko erabakitza jotzen dute migrazioa; seme-alabek, aldiz, errealitate bera oso modu desberdinean ulertzen dute. Seme-alabek haurtzaroan edo nerabezaroan galtzen dute amaren figura hori, eta abandonu gisa identifikatzen dute banaketa. Horregatik, gehienetan, amaren aurkako joera bat jaiotzen da; eta horrek, amen eta haur edo nerabeen arteko harremanean eragin zuzena izateaz gain, eragin bortitzak izan ditzake haien ongizate psikologiko edo fisikoan.

Bestalde, ezinezkoa da haur edo nerabeen ongizatearen bermea aintzat ez hartzea. Ikusi den modura, haur edota nerabe horiek aitona-amonen zaintzapean igarotzen dituzte banaketa-urte luze horiek. Horrek, ordea, ez du amaren figura ezabatzen haur edo nerabearen bizitzatik, nahiz eta amatasuna zalantzan jarri zenbaitetan. Horregatik, ezinbestekoa suertatzen da haurtzaroan edo nerabezaroan bertan lantzea bananduta egoteak eta zaintza- edo heziketa-figura nagusia aldatu izanak eragin ditzakeen kalteak.

Norberaren ikuspegitik begiratura, familia biltzean sortzen diren arazo edo zailtasunen jatorria banantzean sortutako sentimendu edo emozioen lanketarik eza da. Banantzean, seme-alabek ez dute ulertzen zergatik "abandonatu" dituzten amek, eta horrek izugarriko mina eragiten die, erantzunik gabeko mina. Horrela, bada, "abandonu"-sentimendu horren zama guztia bizkarrean eramaten dute urte luzez, eta zama hori handitzen joaten da pixkanaka-pixkanaka, harik eta amarenganako amorru eta arbuio bihurtzen den arte.

Aipatu den guztiagatik, gizarte-langile bezala, familiekin esku hartzeko zenbait momentu daudela ikusten da. Hasteko eta behin, amaren migrazio-prozesuaren arrazoiak lantzea ezinbestekotzat hartzen da; hau da, haurrak arrazoi horiek ulertzeko gaitasuna eskuratzean, ezinbestekoa da seme-alabei migratzeko arrazoia eta, batik bat, bananduta egongo diren etaparen ezaugarriak argi eta garbi ulertaraztea.

Bestalde, bananduta igarotzen duten denbora horretan amak umearen zaintzarekin lotutako erabakietan parte hartzearen garrantzia nabarmendu nahi da; ikusi dugunez, haurrak amaren autoritate-rola gutxiesten joaten dira, rol hori guztiz desagertzen den arte. Horregatik, garbi ikusten da zeinen beharrezkoa den ama zaintzaile gisa identifikatzea eta rol hori lantzea, haurraren eta amaren arteko harremanean dauden rolak eta rol horiekin lotutako eginkizunak ez galtzeko.

Horregatik guztiagatik, profesionalak bi aldeekin egin behar du lan prozesuan zehar: bai seme-alabekin (beren zaintzaren arduradun diren senitartekoak ere aintzat hartuz) eta bai amekin ere.

Horrekin batera, garrantzitsutzat hartzen da familiari behar dituen laguntza eta baliabideak eskaintzea: besteak beste, uste zabaldua da amarekin lanketa iristen denetik bertatik hastea izan daitekeela biderik aproposena. Gainera, bere migrazio-prozesua eta

banaketaren errealitatea lantzeaz gain, aurrera begira oso egokia izan liteke berrelkartzea bera ere lantzea.

Seme-alabekin ere iritsi bezain pronto ekin beharko litzaioke lanketari, eta amarekin egindako lanketa kontuan izanik, seme-alabak ere lanketa horretan sartu litezke, edo lanketa pertsonalago bat egin liteke haiekin.

Azken batean, argi dago gaur egungo errealitatea zein den: hasierako bi etapetan esku hartzen ez denez, familia biltzean izugarriko arazo eta zailtasunak sortzen dira.

Ikusi dugunez, berriz ere familia bilduko den egunarekin amesten dute amek, atzera ere seme-alabekin bizitzea irrikatzen baitute. Momentua iristean, ordea, harremana ezezagunak balira bezalakoa izaten da, eta horrek agerian uzten du zer-nolako arazoei egin behar zaien aurre: amatasun-rolaren garrantzia, eta rol horrek izaera eta garrantzia galdu duela bananduta igarotako urteetan zehar.

Horregatik, etorkizuneko profesionalok erronka handi bat dugu ate-joka: lanketan edo esku-hartzean pausoak ematea aurrera, eta horrekin lotutako beharren aurrean profesionalen presentzia nabarmentzea.

Horrela, bada, zenbait faktore sozialek eragiten duten familiarterako banaketan aurrean, kohesioa mantentzea eta emakume borrokalaria guztiari babesa eskaintzea izan daiteke gizarte-langileon erronka handienetakoa bat aztertu den errealitatearen aurrean.

Egungo egoera sozialek agerian uzten dute migrazio-prozesuek indarrean jarraituko dutela aurrerantzean ere. Horiek horrela, ikerketa honen protagonista izan diren emakumeen migratzeko arrazoei erreparatu gero, beldurrik gabe esan dezakegu seme-alabak sorterrian utzi eta migratuko duten gero eta ama gehiago izango ditugula hurrengo urteetan. Horregatik, gutxi aipatzen den errealitate horren berri eman eta emakume eta ama horien ausardiaren eta indarraren balioa ezagutarazteko egin nahi izan dugu ikerketa hau, eta, profesional gisa, baita etorkizuneko gure langai izango diren familien errealitateetara hurbiltzen hasteko ere.

Etorkizuneko lan-ildo gisa, gizartea —eta, haren barruan, baita familia bera ere— etengabe aldatzen dela kontuan izanik, familia mota hauen ezaugarrietan sakondu beharko genuke. Gainera, lan honetan aztertutakoa kontuan izanik, seme-alabek berek beren esperientzia nola bizi duten are sakonago aztertzea ere oso aberasgarria izan daiteke ikertzaileontzat; izan ere, bi seme elkarrizketatzeko aukera izan dugun arren, lagina oso txikia da, eta, elkarrizketa horietan landutakoa oso baliotsua izan bada ere, aztertutako seme-alaben artean ezaugarri-aniztasun handiagoa egon dadin lortzea oso baliotsua izan daiteke etorkizuneko ikerketetan (genero eta adin aldetik, batik bat).

- ABU-WARDA, N. (2008): "Las migraciones internacionales", *'Ilu. Revista de Ciencias de las Religiones*, 21. zk., 33.-50. or.
- ARTICO, C. I. (2003): "Latino families broken by immigration. The adolescent's perceptions", New York, LFB Scholarly Publishing.
- BALSELLS, M. Á.; DEL ARCO, I. eta MIÑAMBRES, A. (2007): "Familias, educación y prevención del maltrato infantil", *Bordón. Revista de Pedagogía*, 59. lib., 1. zk., 31.-47. or.
- BENÍTEZ PÉREZ, M. E. (2017): "La familia: desde lo tradicional a lo discutible", *Revista Novedades en Población*, 13. lib., 26. zk., 58.-68. or.
- BLANCO FERNÁNDEZ DE VALDERRAMA, C. (2016): "Transnational families and human rights. Considerations on the right to family reunification in Spain", *Deusto Journal of Human Rights*, 1. zk., 77.-104. or.
- CÁRDENAS, M. I. (2014): "La reagrupación familiar, ¿qué dice la literatura?", *Redes, Revista de Psicoterapia Relacional e Intervenciones Sociales*, 30. zk., 117.-134. or.
- CARRASCO, S.; PÀMIÉS, J. eta BERTRAN, M. (2009): "Familias inmigrantes y escuela: desencuentros, estrategias y capital social", *Revista Complutense de Educación*, 20. lib., 1. zk., 55.-78. or.
- CASAS, L. (2008): "Migración, género y hogares transnacionales" [doktore-tesia], Universidade da Coruña.
- CEREZO, M. Á. eta PONS-SALVADOR, G. (1999): "Supporting appropriate parenting practices. A preventive approach of infant maltreatment in a community context", *International Journal of Child & Family Welfare*, 4. lib., 1. zk., 42.-61. or.
- CONTRERAS HERNÁNDEZ, P. A. (2016): "Migración femenina en España: una aproximación a la 'otra' desde la representación social", *Question/Cuestión*, 1. lib., 50. zk., 34.-50. or.
- DE LUCAS, J. (2003): "Inmigración y globalización: acerca de los presupuestos de una política de inmigración", *Revista Electrónica de Derecho de la Universidad de La Rioja*, 1. zk., 44.-70. or.
- FAJARDO, M.; PATIÑO, M. I. eta PATIÑO, C. (2008): "Estudios actuales sobre aculturación y salud mental en inmigrantes: revisión y perspectivas", *Revista Iberoamericana de Psicología. Ciencia y Tecnología*, 1. lib., 1. zk., 39.-50. or.
- FALICOV, C. J. (2007): "La familia transnacional: un nuevo y valiente tipo de familia", *Perspectiva Sistémica*, 94.-95. zk., 13.-17. or.
- (2008): "El trabajo con inmigrantes transnacionales: expandiendo los significados de familia, comunidad y cultura", *Redes. Revista de Psicoterapia Relacional e Intervenciones Sociales*, 20. zk., 25.-42. or.
- FANJUL, E. (2020): "Qué es la globalización", *Escuela de Comercio Exterior*, 2. zk., 1.-18. or.
- GARCÍA AZPURU, A. (2017): "Casualidad o causalidad de la afluencia migratoria en la Comunidad Autónoma de Euskadi" [doktore-tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea.
- GARCÍA BALLESTEROS, A.; JIMÉNEZ BASCO, B. eta REDONDO GONZÁLEZ, A. (2009): "La inmigración latinoamericana en España en el siglo XXI", *Investigaciones Geográficas*, 70. zk., 55.-70. or.
- GARCÍA, R. eta GUSTAVO, O. (2013): "Comentarios al concepto de la familia y a algunas perspectivas del mismo desde la política pública", *Revista Colombiana de Trabajo Social*, 24. zk., 73.-93. or.

- GIL ARAUJO, S. eta PEDONE, C. (2008): "Los laberintos de la ciudadanía. Políticas migratorias e inserción de las familias migrantes latinoamericanas en España", *Revista Interdisciplinaria de Movilidad Humana*, 16. lib, 31. zk., 143.-164. or.
- GÓMEZ DE LEÓN DEL RÍO, J. eta VICENCIO GUZMÁN, J. (2006): "The impact of absence: families, migration and family therapy in Ocoatepec", *American Family Therapy Academy*, 2. lib., 1. zk., 34.-43. or.
- GUZMÁN CASTELO, E. (2005) "Definiciones y conceptos sobre la migración", in GUZMÁN CASTELO, E., "Logros y retos del Frente Indígena Oaxaqueño Binacional: una organización para el futuro de los migrantes indígenas" [lizentziatura-tesia], Universidad de las Américas, 6.-36. or.
- HERRERA HERNÁNDEZ, J. (2017): "La investigación cualitativa", <<https://juanherrer.files.wordpress.com/2008/05/investigacion-cualitativa.pdf>>.
- IKUSPEGI (2022): "Tablas predefinidas", Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokia, <https://ikuspegi.eus/eus/migracion_y_asilo/banco_de_datos/estadisticas_tablas.php>.
- LEAL, N. (2000): "El método fenomenológico: principios, momentos y reducciones", *Revista Electrónica de Investigación Científica, Humanística y Tecnológica*, 1. lib., 5. zk., 52.-60. or.
- MÁIQUEZ, M. L. et al. (2000): *Aprender en la vida cotidiana. Un programa experiencial para padres*, Madril, Visor.
- MARTÍNEZ BUJÁN, R. (2003): "La reciente inmigración latinoamericana a España", Santiago, Nazio Batuak.
- MARTÍNEZ-TABOADA, C. et al. (2017): "La predicción afectiva positiva como factor de protección socio-emocional en madres transnacionales antes y después de la reagrupación familiar: relación con la satisfacción con la vida, regulación emocional, soledad social, resiliencia y estrés", *Terapia Psicológica*, 35. lib., 2. zk., 173.-184. or.
- MITRANI, V. B.; SANTISTEBAN, D. A. eta MUIR, J. A. (2004): "Assessing immigration-related separations in hispanic families with a behavior-problem adolescent", *American Journal of Orthopsychiatry*, 74. lib., 3. zk., 219.-229. or.
- PALACIOS, J. eta RODRIGO, M. J. (1998): "La familia como contexto de desarrollo humano", in RODRIGO, M. J. eta PALACIOS, J., *Familia y desarrollo humano*, Madril, Alianza, 25.-44. or.
- PARELLA, S. eta CAVALCANTI, L. (2010): "Dinámicas familiares transnacionales y migración femenina: el caso de las migrantes bolivianas en España", in GRUPO INTERDISCIPLINARIO DE INVESTIGADOR@S MIGRANTES (koord.), *Familias, jóvenes, niños y niñas migrantes. Rompiendo estereotipos*, Madril, lepala, 93.-103. or.
- PASCALE, P. (2006): "Familia transnacional", *Relaciones. Revista al Tema del Hombre*, 265. zk.
- PEDONE, C. (2003): "'Tú siempre jalas a los tuyos' Cadenas y redes migratorias de las familias ecuatorianas hacia España" [dokto-re-tesia], Universitat Autònoma de Barcelona.
- (2010): "Varones aventureros contra madres que abandonan: reconstrucción de las relaciones familiares a partir de la migración ecuatoriana", in LACOMBA, J. eta FALOMIR, F. (ed.), *De las migraciones como problema a las migraciones como oportunidad: codesarrollo y movimientos migratorios*, Madril, Los Libros de la Catarata, 165.-182. or.
- REYES, N. (2012): "Las ludotecas: orígenes, modelos educativos y nuevos espacios de socialización infantil" [dokto-re-tesia], Universidad de Granada.
- ROMERO, A. (2002): "Globalización y pobreza", Pasto, Universidad de Nariño.
- RUIZ GARCÍA, A. (2002): "Migración oaxaqueña, una aproximación a la realidad", Oaxaca, Coordinación Estatal de Atención al Migrante Oaxaqueño.
- SCHATKE, M. (2016): "¿Concepto (s) de familia en la posmodernidad?", *Desarrollo, Economía y Sociedad*, 5. lib., 1. zk., 65.-78. or.
- SHAFFER, D. R. eta KIPP, K. (2013): "Developmental psychology: childhood and adolescence", Belmont, Wadsworth.
- SOLÉ, C. eta CACHÓN, L. (2006): "Presentación. Globalización e inmigración: los debates actuales", *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 116. lib., 1. zk., 13.-52. or.
- SOLÉ, C. eta PARELLA, S. (2004): "Discursos sobre la maternidad transnacional de las mujeres de origen latinoamericano residentes en Barcelona" [aurkezpena], IV Congreso sobre la Inmigración en España, Girona.
- STOCKER, C. M. et al. (2007): "Family emotional processes and adolescents' adjustment", *Social Development*, 16. lib., 2. zk., 310.-325. or.
- SUÁREZ-OROZCO, C.; JIN, H. eta YEON, H. (2011): "I felt like my heart was staying behind: psychological implications of family separations & reunifications for immigrant youth", *Journal of Adolescent Research*, 26. lib., 2. zk., 222.-257. or.
- SØRENSEN, N. N. (2008) "La familia transnacional de latinoamericanos/as en Europa", in HERRERA, G. eta RAMÍREZ, J. (ed.), *América Latina migrante: estado, familias, identidades*, Quito, Flacso; Ministerio de Cultura del Ecuador, 259.-279. or.
- TATE, E. (2011): *Family separation and reunification of newcomers in Toronto. What does the literature say?*, Reunification and Adaptation Program of Toronto Public Health.
- TERRÉN, E. eta CARRASCO, C. (2007): "Familia, escuela e inmigración", *Migraciones. Publicación del Instituto Universitario de Estudios sobre Migraciones*, 22. zk., 9.-46. or.
- TONON, G. (2009): "La entrevista semi-estructurada como técnica de investigación", in TONON, G. (bil.), *Reflexiones latinoamericanas sobre investigación cualitativa*, Buenos Aires, Prometeo Libros; Universidad Nacional de La Matanza, 2. atala.
- TRENADO, R.; PONS-SALVADOR, G. eta CEREZO, M. A. (2009): "Proteger a la infancia: apoyando y asistiendo a las familias", *Papeles del Psicólogo*, 30. lib., 1. zk., 24.-32. or.
- TRIGO, J. (1998): "Indicators of risk in families receiving attention from social services", *Psychology in Spain*, 2. lib., 1. zk., 66.-75. or.